



Arrasate




P R E S S

2001.eko
apirilaren 27a
538. zenb.



Maiatzak

1



Saiolan Solairua **1**
Planta

6	ALMIS	
LURKOI	7	ICTE
DANKA	8	ABEKI
GOIENA	9	LAINZ
10	SOME	



**Langilearen
Eguna**



Ibarretxe da baietza

EUSKO ABERTZALEAK



urteurrenak

Tecuari adjudikatu Ferialeko pilotalekua

■ 62. zenb.
(1990-05-04)



Hileroko osoko bilkuran, udalak Ferialeko pilotalekuko lanak Tecsa enpresari adjudikatu zizkion. Lanok 248.504.984 pezeta kostako lirateke. Bestalde, Iturripeko kiroldegia Brues enpresak eraikitzea adostu zuten, eta 306.759.931 pezetako kostua izango luke. Argazkian, proiektuaren arabera eraiki gura zuten pilotalekuaren irudi bat.

Mojategiko atletismo pista

■ 62. zenb.
(1990-05-04)

Arrasateko Udalak Mojategin atletismo pista eraikitzeko lehen urratsak egin zituen,

eta horretarako arau subsidiarioak egokitu zituen. Udala lur jabeekin harremanetan jarri zen, lurrak desjabetze bidez hartzeko. Aurrez, 1986an, udalak aurreproiektua enkargatu, baina ez zuen onartu. Gero, udalak atletismo pistaren aurreproiektua Diputazioan aurkeztu beharko luke, eta han onartzuz gero, lanak egiteko dirulaguntzak jaso.

Maratoilari arrasatearrak

■ 62. zenb.
(1990-05-04)

Apirileko azken asteburuan, hiru arrasatear izan genituen Madrilen. Espainiako Estatuako maratoi txapelketan parte hartu zuten. Enrique Kabiketa 20. sailkatu zen, baina aurretik sartutakoan artean zortzi atzerritarrek zirenez, 12. tokia eskuratu zuten txapelketan, eta hala, Arrasateko errekor berria ezarri zuen: 2 ordu, 25 minutu eta 48 segundo. Pedro Zalama 68. sailkatu zen, eta Cesar Diez 300. izan zen helmugan.

besteek esana



MUko HUHEZI fakultateko ikasle eta irakasle talde batek *Lankidetz*a: *Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua* osatu dugu. Liburuaren helburua bere pentsamendua agertzea da, ikuspegi didaktiko eta dibulgatzailetik. Enpresa-formula kooperatibotik haratago, autoeraketan eta lankidetzan oinarritutako eraldaketa proiektu osoa planteatu zuen. Urteak igaro dira, eta gauza asko aldatu dira, bai ingurunean eta bai kooperatibetan ere. Zer eskaintzen die oraingo belaunaldiari Arizmendiarietak? Autoeraketaren pentsamendua sendoa, kemen sortzailea eta gausatze baten esperientzia, ideiak praktikara eramateko gaitasuna. »

HUHEZI fakultateko ikasle eta irakasle taldea
KOOP Euskal Enpresa kooperatiboa
(2001eko apirila)



ARCO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARCO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzela. **Publizitateak:** Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Disenua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakilea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28).
©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailuz:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

 **ARRASATE PRESS paper** birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kulturaren laguntza

aurkibidea

- Lehen begiratu a 3
- Asteko hitzorduak 4
- Inkesta 5
- Astearren errepasoa. 6
- Orain eta hemen 9/10
- Txutxumtxuak 11/12
- Aurrez aurre 16/17
- Kirolak jokoan. 18/20
- Kulturaren txokoa . . . 22/23
- Auzoz auzo 24
- Uhinetan barrena 25
- Foto zaharra 26



ZERBITZUAK

Eritxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 14:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa

Arrasate

Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espesialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron
	(euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

ibilgailuen zerga

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren ordainagiriak aurkezteko epea maiatzaren 2an bukatuko da. Horren ondoren aurkez-

ten direnak, %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

odol ateratzeak

Apirilaren 30ean, odol ateratzeak egingo dituz-

te anbulatorioan, 16:15etik 20:00etara.

1950eko kintoei deia

50eko kintoei, 1929an jaiotakoek, Olitera irteera egiteko aukera izango dute maiatzaren 8an. Homenaje izeneko upeltegira bisita egingo dute. Izena emateko, deitu Jose Oleari,

etxera (943 79 22 79) edo Goizalde tabernara (943 79 11 15), edo Jose Aranzabali (943 79 13 51). Maiatzaren 2a duzue azken eguna.

kintadak maiatzaren 5ean

Maiatzaren 5ean, bi kinto batzar egingo dira. 1940koek meza izango dute San Frantziskon, 12:30ean, eta bazkaria Amaikak Gazte elkartearen. Parte hartzeko, deitu Angel Lasa-

bagasterri (943 79 12 60) edo Mario Ugarteri (943 71 24 93). Bestalde, 1951koek ere egun horretan izango dute ospakizuna.

autobusa donostiara

Apirilaren 28an Donostian egingo den torturaren aurkako martxa isilean parte hartzeko autobusak antolatuta dira. Parte hartu gura badu-

zue, Irati tabernan izango dituzue txartelak salgai.

eguzki-laru prestatzen

San Juanak datozela eta, Eguzki-Laru eguna prestatzen hasi da Txatxilipurdi. Parte hartu gura duten bazkide guztiek maiatzaren 15era

arte izango dute izena emateko: deitu 943 77 17 37 telefonora, eta galdetu Joneren-gatik edo Rebekarengatik.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 27

- Ruiz, Magdalena

Zapatua, 28

- Morales, Araba

Domeka, 29

- Azkoaga, Ferrerías

Astelehena, 30

- Azkoaga, Iturriotz

Martitzena, 1

- Corcuera, Aranbarri

Eguaztena, 2

- Irizar, Erguin

Eguena, 3

- Amezua, Santa Marina

TOLDOS LECE C/B

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83
Faxa: 943 77 04 45

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Auzoetako zein jai duzu gustukoen?

Urtero moduan, Altamirako jaiak hasiera eman diete auzoetako ospakizunei



Unai Baena
(Ikaslea)

Zigorrolako eta San Andresko jaiak atsegin ditut. Ni Erguinekoa naiz, baina auzo haietan giro berezia izaten da.



Eduardo Elorriaga
(Ikaslea)

Zigorrolako jaiak dira onenak, txosnetan izaten den giro-agatik.



Nahikari Ganboa
(Ikaslea)

Zigorrolako jaiak gustatzen zaizkit, kontzertu onak eta euskal giroa izaten delako.



Mari Cruz Vidal
(Langilea)

Zigorrolakoak, duda barik. Urtero joaten naiz. San Juanak baino hobeak dira.



Carmen Delgado
(Langilea)

Lehen, San Andresko jaiak gustatzen zitzaizkidan, baina aspaldian behera egin dute.




Vicenta Fernandez
(Erretiratua)

Nik gutxitan irteten dut, baina San Andresen, esaterako, giro handia izaten da.



Mikel Larrañaga
(Ikaslea)

Zigorrolako jaietan izaten da giro politena.



Anton Losada
(Langilea)

Zigorrolako jaiak gustatzen zaizkit, jende ugari ibiltzen delako.

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

 **Txitxinpe**

Bereizitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

 **MARKO-JARTZEAK**

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

USTEAK USTE

Egunerokotasunera bueltatu

Aste santua igarota, jai izan dugunok, behintzat, txip aldaketa ezarri behar izaten diogu gure buruari lanera bueltatu bezain pronto. Egun gutxiko atsendaldia bada ere, teorian eguraldia hobetu, eta erlaxatu egiten ditugu gorputz eta burmuina, opor luzeagoak eta uda bera gertu dugulakoan. Hala ere, hemendik uda arte badago saltsarik, eta ez edonolakoa. Hain zuzen ere, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak berehala datozkigu, eta ustezko kanpaina hastera badoa ere, batzuek kanpin edo "kanpaina" denda aspaldi ezarri zuten lasai bizitzerik ez daukan Euskal Herri kolpatu baina kementsu honetan. Bestalde, berehala, langileen nazioarteko eguna da. Ustez atzean gelditu ziren langile bortitz eta iraultzaileak zein mailu eta igitaien ereduak baina inguru honetako gizartea "garatua" dela dioten arren, horra hor, egungo lan-istripuen kopuru beldurgarria, saihestu ez dena, edo langile-riaren erantzunik gabeko eskaera ugari.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Gau eskolarik ez

Arrasateko Institutuan ez da gau eskolarik emango. Institutuko zuzendaritzak egingandako eskaintzak ez du arrakastarik izan, eta horren ondorioz, ezingo da gauean batxilergoko eskolarik eman.

Izan ere, guztira, bost lagun matrikulatu dira, eta hori ez da nahikoa. Gainera, lau batxilergo mota daude eta izena eman duten ikasleak ez dira ados jarri bakarria aukeratzeko orduan.

20 eta 30 urte bitarteko gazteek eman dute izena, eta horietako batzuk Gasteizen eta Eibarren ari dira batxilergoa ikasten.

Edozelan ere, eta nahiz eta aurrean eskolarik egon ez, datorren ikasturtean berriro ere egingo du eskaintza institutuak.

■ Ikastaroak Euskadiko Kutxan

Oraingo astean, Zaragozako, Leongo eta Burgosko hamar gazte Mondragoen izan dira hiru egunez. Euskadiko Kutxak hiri horietan irekiko dituen bulegoetako zuzendariak dira guztiak eta lanbidea ikastera etorri dira, gauza gutxi zekiten-eta kooperatibismoaz. Jose Mari Larrañaga arduratu da erakutsi beharrekoa erakustez.

Gero, hemendik joandakoan, bulego berrietan hasiko dira lanean.

■ Gotzaina Gesalibarren

Joan Maria Uriarte Gipuzkoako gotzaina Gesalibarren izan zen zapatuan. Meza esatera etorri zen, Clara Ezkurra dohatsu arrasatearraren omenaldian. Besteak beste, Gesalibarko mojarren bizitza gogora ekarri zuen

eta berba ederrak izan zituen harenganako.

■ San Andresko alkatetza

Orain dela pare bat hilabete suté txikia izan zen San Andres auzoko alkatetzan. Zirkuitulaburra gertatu zen susmoa dute. Horren ondorioz, altzariek su hartu zuten eta material gehiena sintetikoa denez, ke handia sortu zen, eta barrualde guztia belztu zen.

Ordutik hona, baina, hura txukuntzeko lanean jardun dute. Dagoeneko, egin beharreko konponketa eta margolan guztiak egin dituzte. Orain, garbiketa lanak besterik ez dira falta eta auzotarren nahia da guztia jaietarako prest izatea. Hala ere, garbitzaileek greba hasi dutenez, oraindik ez dago batere argi noiz zabalduko duten.

■ EEBBetatik Mondragoera

Estatu Batuetako 14 lagun Debagoienean dira egunotan. Boston, Philadelphia eta Massachusettsetik etorri dira, besteak beste. Astebete egingo dute hemen, eta tarte horretan, hemengo kooperatibak bisitatuko dituzte, gero, hemen ikusitakoa Estatu Batuetan praktikan jartzeko. Izan ere, batzuek kooperatiba txikiak gidatzen dituzte han, eta euren ustez garrantzitsua izan daiteke hemen ikusitakoa han praktikan jartzea. Aholkulari lanak egingo dituzte, besteak beste.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Arrasate aretxabaleta INSTITUTUA

Zure
etorkizunerako
biderik onena



Hezkuntza Eskaintza

Batxilergoak

- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa
- Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa
- Batxilergo Teknologikoa
A eta D Ereduak

Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Ibilgailuen Elektromekanika
- Kontsumorako Ekipo Elektronikoak
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako Laguntza Osagarriak
D Eredua

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko
Produkzioa
- Metal Eraikuntzak
A eta D Ereduak

Aurrematrikulazioa Batxilergotan

Maiatzaren 2tik 11ra
Goizeko 9:00etatik 17:00etara
(Ostiraletan 9:00etatik 14:00etara)



Aurrematrikulazioa Zikloetan

Ekainaren 1tik 12ra
Goizeko 9:00etatik 17:00etara
(Ostiraletan 9:00etatik 14:00etara)

Etxebarri auzoa, z/g
Tel: 943 79 79 00 • 79 79 43
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABALETA

Sta. Teresa, 25
Tel: 943 79 83 00 • 79 44 47
Faxa: 943 79 44 37
20500 ARRASATE



ONGI ETORRI UDABERRI

IDEIA FRESKOENEKIN
GATOZ

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

Garbitzaileak greban



Astelehenean, mugagabeko greba hasi zuten garbiketan jarduten duten langileek. ELA, UGT, CCOO, ESK eta LAB sindikatuek deituta, hiru eskera nagusi dituzte garbitzaileek.

Sindikatuak eta patronala pasa den urtarrilaren 15ean hasi ziren lan hitzarmen probintziala negoziatzen, baina pasa den apirilaren 2an, negoziatzaierako mahaia desegin zen.

Izan ere, langileek hiru eskari egin dituzte: datozen hiru urteetan lan astea 35 ordu-

ra murriztea, gaixotasunarengatik hartzen diren bajetan hobekuntzak sartzea eta soldata KPI gehi bi puntu igotzea.

Patronalak, ostera, KPIren adinako igoera eskaini die bakkarrrik, eta gainera, kontzeptu batzuk bertan behera utzi ditu: langileen antzinakotasuna, garraioarengatik ematen den plusa...

Horrez gain, sindikatuek salatu dutenez, patronalak ez du onartu, aitatutako gaiez gainera, langileen bestelako errebindikaziorik eztabaidatzea.

Halaber, zera salatu dute, enpresariak 100 ordu gorde gura dituztela eurek nahi dutenean erabiltzeko.

EGUNERO

Horregatik guztiagatik, astelehenean hasi eta oraingoz, behintzat, egunero-egunero egingo dituzte mobilizazioak. Arratsaldean elkartzen dira, 16:00etan, sindikatuen etxearen beheko aldean, eta hantxe egoten dira 18:00ak arte. Bestalde, beste hainbat mobilizazio egingo dituztela ere iragarri dute langileek, eta jadanik horretan hasi dira. Esaterako, martitzenean, kale agerraldia egin zuten herriko kaleetan. Antolatzaileen esanetan, 200 bat lagun elkartu ziren, garbiketako ordezkarien %100 hain justu ere. Hori bai, salatu dutenez, langile finkoak eta noizbehinkakoak irten dira grebara. Aldiz, langile-bazkideek lanean jarraitu dute, eta asko greban dauzden lan egiten dihardute.

Lan istripuen aurka



Lan Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, lanean segurtasuna eskatzeko mobilizazioak deitu dituzte sindikatuek gaur. Hain justu, ordubeteko geldialdia egitea proposatu dute sindikatuek. Maiatzaren 1erako ez dira ados jarri, baina oraingoan, guztiek bat egin dute lanean izaten diren istripuak salatzen orduan. ELA, LAB, ESK eta STEE/EILAS sindikatuek osasuna eta askotan bizia galdu duten langileak gogora ekarri gura izan dituzte.

Emandako datuen arabera, 2000. urtean 159 langile hil ziren eta 73.000 baino gehiagok lan istripuak izan zituzten. Eta gaineratutakoaren arabera, kopuru horiek gora egiten dute urtetik urtera.

Horrekin batera, lanak eragiten dituen gaixotasunak ere salatu dituzte sindikatuek.

Halaber, beste hainbat errebindikazio egin dituzte gaur: esaterako, aldi baterako kontratuak, desegonkortasuna, prestakuntza espezifikorik eza.

Aurrekanpaina, EHren eskutik



Oraingo astean, aurrekanpaina Mondragoera heldu zaigu, Euskal Herritarrok alderdiaren eskutik. Arnaldo Otegi burujabetzaren aldeko hitzarmena aurkeztu zuen Alai zineman.

Izan ere, Arnaldo Otegi ordezkatzaren duen alderdiaren ustez, burujabetzak ekarriko dio bakea Euskal Herriari. Eta burujabetza lortzeko bidea autodeterminazioa dela esan zuen Otegi.

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**PUB
HAIZEA**



Alzheimerraren gaineko jardunaldiak



Aita Menni ospitaleko profesionalak egingo dituzte.

OPORRAK

Jardunaldiez gain, oporrak ere antolatu dituzte alzheimerra edo beste mota bateko dementsia dutenentzako eta baita haien zaintzaile edo senideentzako ere. Gizartekintzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu dituzte oporrak. Udaberrian eta udazkenean izango dira. Aukeraturako tokiak, berri, Alfaro (Errioxa) eta Noja (Kantabria).

Udaberriko izena ematea datorren martitzenean amaitzen da, eta udazkenean abuztuaren 1a baino lehen egin beharra dago. AFAGIK Donostian duen egoitzan egin behar da izena ematea. Gero, oporrak: maiatzaren 22tik 31ra (Alfaro); ekainaren 3tik 12ra (Noja); ekainaren 18tik 27ra (Noja) eta irailaren 5etik 14ra (Alfaro).

Plazak emateko orduan, lehenetsia izango dute baliabide gutxien dutenek eta gaixotasun faseen larritasunaren arabera sailka daitezkeenak.

Txartel berria



Ibilgailua aparkatzeko ezin duendako txartela aldatu egin dute. Europar Batasunean indarrean dagoen txartelaren balio bera izango du, eta jabeak Europako edozein tokitan erabili ahal izango du. Orain, mota horretako txartel baten jabe denak sei hilabete izango ditu txartela aldatu eta berria eskuratzeko. Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko du, txartel tamainako bi argazki eta oraingo txartelarekin. Txartel zaharra berriaren truke emango du, baina berriak aurrekoaren iraupen bera gordeko du.

Datorren martitzenean hasi eta lau egunez, alzheimer gaixotasunaren gaineko jardunaldiak egingo dira Monterron jauregian. Gipuzkoako Alzheimerdunen Senitartekoen Elkarteak (AFAGIK) eta Aita Menni Ospitaleak antolatuta, gaixotasunaren gaineko informazioa (genetika, diagnostikoa eta sintomak), zainketak nola egin (gaixo adinekoentzako erizaintza-zainketak eta jarrera arazoaren erabilpen teknikak) eta gaixotasunaren eraginez sor-

tzen diren gizarte eta familia arazoak (arazo etiko eta legalak, gizarte baliabideak...) aztertuko dituzte. Hori guztia alzheimerdun gaixoen senideei eskaintzea da antolatzaileen helburua.

Arratsaldean hasiko dira jardunaldiak, 16:00etan. Esan bezala, lehenengoa martitzenean, maiatzaren 2an, izango da, hurrengo biak maiatzaren 16an eta maiatzaren 30ean eta azkenengoak ekainaren 6an eta 20an. Berbaldi gehienak



Body piercing-a, gorputzeko edozein tokitan, 5.000 pezeta.



Zarugalde, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 44 88

Zulatu, tatuatu eta New York ezagutu!!

Tatuaje edo body piercing bat egin ezker, New Yorkerako bidai baten zozketan sartuko zara. Bi pertsonentzat, astebeteko egonaldia.



MODA PASATU DA ALA?

Ez da jostailu dendako erakusleihoa, Udaltzaingoa baizik. Hantxe daude, joan den astetik, bi patinete hauek. Kanean agertu ziren, akaso euren jabeek asper-asper eginda utzi zituztelako han. Bateren bat bila joan ezean, urtebetez izango dira udaletxean.

TALOGILE GAZTETXOAK

Gazte txokoetako hamahiru eta hamasei urte arteko gaztetxoak dituzue hauek, eskuak arto-irinaz lohituta. Taloak zelan egin ikasten aritu ziren, primerako irakasleen eskutik: Ekin Emakumeak elkartekoak. San Juanetan izango dugu hauen taloak dastatzeko aukera.



AG AMAGARA

Maiatzetik aurrera ZERBITZU PROFESIONAL BERRI bat eskaintzen dugu



Behar duzun tratamendu egokiena
eskurik onenetan

KIROL MASAJEA ETA TERAPEUTIKOA

Martin Peña Arantzamendi

KIROMASAJISTA

Diplomatu zbkia. 960525

Kirol masajea eta terapeutikoa

Cyriax, trauma, esginze, tendinitisak...

Zaintiratu, baturak eta hausturak...

Lunbagia ...

Stretching, reflexoterapia...

Erdiko kale, 54 • ARRASATE • Tel.: 943 79 09 09

SEKULA HORRELAKORIK!

Liburuak maileguz hartzea ondo dago, baina gero dagoenetan itzuli behar dira, ala? Bateren batek ez ei du horrela ulertzen eta halako barrabaskeriak egin izan ditu liburuekin. Monterrongo liburu zaharren azokarako besterik ez du balio obra gaixo honek.

ARRANTZALEAK, ADI!

Aspalditxoan, kartel hauek Arrasateko hainbat gunetan ikusgai daude. Eta kontua da ipini dituenak ez duela ez sinadurarik, ez zigilurik, ez beste ezer gehitu ere. Mezu ekologikoren bat izango da atzean, ala apaingarri jo behar ditugu?

ALTAMIRAKO JAIETAN, ERRETIRATUAK PROTAGONISTA

Joan den asteburuan, Altamirako erretiratuek omenaldia jaso zuten auzoko jaietan. Dantzariak aureskua eskaini zieten, bana-koa gero... eta nagusiak, loreak eta opariak eskuan zituztela, gustura haiei begira.



**Pando
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebedun hizkiak

**BASATI
TABERNA**
PINTXUAK, BORATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

San Andresko jaiak

Egubakoitza, 27

18:00 Jaien hasiera: etxafleroak, eta erraldoi eta kilikien desfilea. Pulpeiroaren txosna irekiko dute.

Zapatua, 28

11:30 Umeendako parkea zabalduko dute, puzgarri eta eskulanekin.

12:00 Txarangaren irteera

18:00 Txarangaren irteera Erraldoi eta kilikien desfilea; gero, txokolate jana Kurtze Txiki plazan.

23:00 Dantzaldia Joselu Anaiekin

Domeka, 29

11:30 Puzgarriak umeendako

12:00 Txarangaren irteera

12:30 Herri kirolak

18:00 Txarangaren irteera Erraldoi eta kilikien desfilea

Astelehena, 30

12:00 Txarangaren irteera

16:00 Umeendako jolasak, Kurtze Txiki plazan

18:00 Txarangaren irteera. Erraldoi eta kilikien desfilea. Arku-tiro postua ikastetxeko patioan

23:00 Dantzaldia Preludio orkestrarekin

Martitzena, 1

11:00 Etxaflero jaurtitzea

11:30 Auzoko nagusien omenezko meza

12:00 Txarangaren irteera

12:30 Nagusiendako bazkaria, Extremadurako Kultura Elkartearen

18:00 Txarangaren irteera Erraldoi eta kilikien desfilea

21:00 Azken traka eta jaien bukaera

EMAKUMEON TXOKOA

Arrasateko komiki ez sexisten IV lehiaketa

- Arrasateko Udaleko Emakume Sailak, Gazteria eta Euskara Sailen laguntzarekin, Arrasateko Komiki Ez Sexisten IV. Lehiaketa antolatu du. Gaia librea izango da.
- Nahi duenak parte hartu ahal izango du. Parte hartzaileak banaka edo binaka - gidoigilea eta marrazkilaria - aurkez daitezke.
- Lanak aurkezteko epea 2001eko uztailaren 20an, arratsaldeko 14:00etan. Emakume Sailaren bulegoan. Arrasateko Udaletxean.
- Emaizak irailaren 28a baino lehen iragarriko dira.

Sariak:

- Lehen saria: 100.000 pezeta.
- Emakume eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasuna hobeto lantzen duenaren saria: 70.000 pezeta.
- Emakume egilearentzat: 70.000 pezeta.
- Gazte saria: 35.000 pezeta.
- Euskara saria: 35.000 pezeta. (metakorra)
- Sari guztiei PFEZri dagokion atxikipena aplikatuko zaie.

- Komiki batzuk aukeratu eta aldizkari batean argitaratuko dira.
- Saritutako lanak Emakume Sailaren eskuetan geldituko dira eta lanak ustiatzeko eskubideak (kopiak egín, banatu eta saltzekoak) Arrasateko Udalarenak izango dira.

Adi! Emakume!

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak eta Emakume Sailak Monterron kultur etxean dagoen informatika gelara etortzeko gonbita egiten dizue. Orduategia honako hau da:

Golzetan: 10:00etatik 13:00etara.

Arratsaldetan: 16:00etatik 20:00etara.

Larunbatetan: 10:00etatik 13:00etara.

Igandeetan eta astelehen goizetan itxita.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

LINDE

whiskeria

Garro Jenerala, 3 behea
Tel.: 943 79 14 49

NUEVO Taberna

Mota guztietako pintxoak

Bñez D.K., 15
(San Andres auzoa)
943 79 38 19

MEHER

GIZON, EMAKUME ETA
HAURRENTZAKO JANTZIDENDA

Bañez doktorea, 1 • Tel.: 943 79 63 85

OINETAKO KONPONKETAK
RAOS

Mota guztietako
giltzen kopiak



Bañez Doktorea, 6 behea
Tel.: 943 79 74 87 • San Andres

CAFÉ

IAMAI

KONTZEZIMOKALEA

943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

Ondoa San Andre

2001eko apirilak 27,

MODAK
Ritelu

- Gizon, emakume eta gazteentzako arropa
- Lentzeria

Foruen plaza, 3 • Tel.: 943 79 29 99

Jabier

Gozokidenda

Bañez doktorea, 6
Tel.: 943 79 49 82

Aramaio

okindegia

Croissant eta opil egin berriak.
Jai zoriontsuak eta on egin!

Maisu Guridi, 3 Tel.: 943 79 06 46



Araia Gaztak

Bañez doktorea, 8
San Andres

BAL-BAL

- Gazte moda
- Osagarriak

Bañez doktorea, 15
Tel.: 943 79 06 37

Urretxu

taberna

Maisu Guridi, 1
Tel.: 943 79 15 93
ARRASATE

MESÓN MANOLO

- Pintxo aukera ugari
- Eguneko menuak kartara

Bañez doktorea, 3
Tel.: 943 79 22 40

Muruamendiaraz

GOZOTEGIA

Leintzibar, 4
Tel.: 943 79 23 19

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Itxaso

taberna

Araba etorbidea, 14
Tel.: 943 79 57 10
ARRASATE


pasa eko jaietan!!

7, 29, 30 eta maiatzak 1



Araba etorbidea, 3
TEL.: 943 79 11 75 • 79 11 83

AVENIDA



KAFETEGIA

Bñez D.K., 11 (San Andres auzoa)
943 79 20 21

IRU Zangitu

MARGOAK
ALFONBRAK

Araba Etorbidea, 3
Eskatu pabeloia
Tel. 943 79 11 71

IZASKUN
ARRAINDEGIA



Araba pasealekua, 3 Bañez Dokorea, 13
Tel.: 943 79 19 86 Tel.: 943 79 15 10

Jose Antonio
Izagirre
HARATEGIA
URDAITEGIA

Kurtzetxiki, 2
Tel.: 943 79 59 86



Araba Etorbidea, 4
Tel.: 943 79 19 88
Faxa: 943 77 15 76
emaila: ekos@ekos.org

Rita

FRUITADENDA



Errebuelta, 10 • Tel.: 677 81 23 82



herri eskola

*Jai zorianatuak opa dizkizuegu!
Onda pasatu jaietan!!*

Alfonso VIII, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 69 • Faxa: 943 79 00 44

TOKI EDER
KAFFE TABERNA

pintxoak
aukeran

Bñez D.K., 11 (San Andres auzoa)
943 79 31 45



Bñez D.K., 6 (San Andres auzoa)
943 79 74 12

RUIZ
LURRINDEGIA
OPARIAK

Bañez dokorea, 4
Tel.: 943 79 19 94

Tel. partikularra: 943 77 05 74

LIZARRALDE

kirolak

Bizikleten salmenta eta konponketa

Oñati Arrasate
Olakua, 16 Foruen plaza, 1-2
Tel.: 943 78 29 86 Tel.: 943 79 91 47

EDERTU

- Ileapaindegia
- Solarium bertikal eta horizontala



San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE

AKADEMIA

BASTIDA

LANBIDE HEZIKETARAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1
Arrasate
Tel.: 943 79 35 33 - 943 79 32 16
Faxa: 943 79 06 28
emaila: bastida@bastida.es

KURRUXKO

Okindegia
Urdaitegia
Gozotegia
Bakailaoa

Bañez dokorea, 12
Tel.: 943 79 22 57

PEDRO GURIDI (PRESO OHIA)

«*Momentu latzak bizi*»

Pedro Guridi Arozena "Pedrotxo"-k 20 urte pasatxo eman ditu Espainiako kartzeletan. 1980ko azaroaren 7an, goizaldean, atxilotu zuen polizia haren etxean. 1995ean bete zituen zigorraren hiru laurdenak, baina hala ere, pasa den hilaren 11 arte ez dute askatu. Orain, berriro ere etxean da eta guk elkarrizketa egin diogu.

— **Hainbeste urtean kanpoan egon eta gero, zelan ikusi duzu herria?**

— Asko aldatu da. Niretako, lehen baino politagoa geratu da, baina gauza bat oso gogorra iruditu zait: zirkulazioa. Auto mordoa

dago. Ni ohituta nengoen edozein lekutan aparkatzen, inolako arazo barik, eta hori orain ezinezkoa da.

Horrez gain, hainbeste auto moderno eta garesti ikusita, jendeak oso maila altua duela sumatzen da, bes-

te leku batzuetan baino altuagoa. Eta hori gauza ona da batetik, jakina, baina baita txarra ere, bestetik. Izan ere, jendea ohitu egiten da eroso bizitzen eta, ondorioz, ez dago borrokarako lehengo grina. Batzuek borrokatzen segitzen dute, baina gehienek bakoitzak bereari begiratzen diote lehenengo eta beste guztia bigarren mailan geratzen da.

— **Eta jendearengan igarri duzu aldaketarik?**

— Egia esan, oraindik ez dut astirik izan, baina segituan igartzen da ez dagoela lehengo lasaitasuna. Esaterako, lehen txikiteoa egunero egiten zen eta gaur egun ez da horrela; gauetan ere irten dut eta ez dago nire adinekorik, oso jende gaztea ibiltzen da eta parrandak ere beste modu

raldi ona eta entrenamentu apur bat izatea, eta nik oraindik ez dut, orduan, oraingo, Besaidera joan naiz eta hurrengo batean igoko naiz Udaltxera.

— **Lagunekin eta senideekin elkartu zinenen, zer moduz?**

— Hasteko, kartzelako irteera ezustekoa izan zen niretako. Patiora jaisteko prestatzen nengoenean etorri ziren bila, eta esan zidaten 10 minutu nituela gauzak prestatzeko, handik banindoala eta. Zera, ez nintzen gai izan poltsak egiteko ere, eta han utzi nuen guztia. Gero, ordu erdi egon nintzen kartzelako aparkalekuan, gurasoak etorriko zain. Haiek ikustea, lehenengo inpresioa, benetan hunkigarria izan zen. Gero, herri-



«Garrantzitsua da botoa ematea, kontraeraso espainiarra geratzeko besterik ez bada ere»

batekoak dira.

— **Barruan zeundenean amets ugari izango zenuen; bete duzu bat edo bat?**

— Amets ugari nuen, baina lehenbailehen egiteko, pare bat gauza, eta horiek bete ditut: batetik, itsasoa ikustera joan nintzen Debara, eta bestetik, mendira ere joan gura nuen, Udaltxera. Jakina, hara igotzeko beharrezkoa dira egu-

ra heltzea eta lagunak ikustea ere oso gogorra izan zen; polita, baina gogorra.

— **Kartzelan bizipen ugari izan zenuen, duda barik; gogoratzen duzun momentu txar bat? Eta ona?**

— Momentu txar piloa izan dira, baina akaso gogorrena Herreran Mikel Lopetegi kideak bere burua bota zutenekoa izan zen. Zerraldoa

behar ditugu »

pasilloan ipintzen utzi ziguten funtzionarioek, eta lagun guztiak banan-banan igaro ginen aurretik... benetan gogorra.

Momentu ona, ostera, Alcala-Mecon bizi izan nuen. Maritxu Kajoi zela-eta, sekulako jaia antolatu genuen egun hori ospatzeko. Kide gehienek ez zekiten hura zer zen, baina buru-belarri sartu ziren ospakizunean eta oso polita izan zen, biharamuna izan zen okerrena...

— **20 urte egin dituzu barruan ETAKide izateagatik. 20 urteren ondoren esan gene-**

zake gauzak antzera daudela... Merezki izan du?

— Bai, duda barik. Guk eman duguna ez bagenu eman, orain beste egoera (fase) batean egongo gineteke. Gainera, nik garbi daukat batzuek beste batzuek baino gehiago eman behar genuela, denok ere apurtxo bat aurrera egin ahal izateko. Argi dago gauza batzuetan aurrera egin dugula eta beste batzuetan atzera. Esaterako, gaur egun nazionalismoaren kontra dago estatuko indar guztia, eta momentu latzak eta gogorrak bizi behar ditugu.

— **Zer gertatuko da maiatzaren 13an?**

— Kontraerasoa dago. Espainiako indarrek boterea eskuratu gura dute Euskadin eta... Hortaz, garrantzitsua da botoa ematea, kontraeraso hori geratzeko besterik ez bada ere.

— **Euskara gordetzea zelan lortu duzun esaiguzu...**


— Preso guztiak batera geundenean, euskara ikastaroak antolatzen genituen. Gainera, Sorian, esaterako, noizean behin euskara hutsezko asteak egiten genituen: debe-

katuta zegoen telebista ikustea, irriak entzutea...

Gero, sakabanaketarekin, norberak egin behar izan du ahalegina euskara gordetzeko.

Hori bai, ni egon nintzen azkenengo kartzelan (Langraitzen), joan den ikasturtean lortu genuen AEK-ko jendea sartu eta eskolak ematea. Hiru maila daude: hasierakoa, erdikoa eta EGA ateratzeko ikastaroa.

Hori bai, arazo bat ere badute: oraindik ez da erabaki zelan ordainduko diren eskolak. ■



weru®

weru®
Ate + leihoak




ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

**PVC-zko ate eta leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape kortinak,
Kortinoba, testila...**



Asteburuan, Mon Dragon Miranush taldeko kideak Arbizelain izan dira txakurrak hezitzeko ikastaroan.

Txakurrak eta jabeak heziz

Pasa den astebukaeran, Mon Dragon Miranush elkarteak antolatutako txakur hezitzaileendako bigarren ikastaroa izan zen Arbizelain. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina jende ugari hurbildu zen, eta guztira 15 lagunek esku hartu zuten. Gure bailarako txakur-zaleez gainera, Gasteiz, Bilbo, Legazpi edo Durangoko jen-

dea ere izan zen ikastaroan. Euren txakurra lehiaketetara eramateko asmoa duen jendea hurbildu zen Arbizelaira, horrelako txapelketetan egin beharreko ariketak hobetzeko asmoz.

Ikastaroa Xabier Marsinyach adituak eman zuen: ring teknikak irakatsi zituen, hau da, esana betetzeko eta defen-

tsako ariketak. Azkenaldian, txakurren erasoak komunikabide guztietan hizpide izan dira. Jon Iñaki Lasa Mon Dragon Miranoush taldeko kidearen esanetan, arazoa jabeena da, ez txakurrarena. Azkenik, Xabier Marsinyach adituaren esanetan, Euskal Herrian eta Katalunian kirol horretan oso maila ona dago.



Leintz elkarteak kideak zapatuan Santa Cruz del Fierro.

Ehiza txapelketa

Leintz elkarteak antolatutako, San Huerto ehiza txapelketa izan da Arabako Santa Cruz del Fierro. Txapelketan, Arrasateko elkarteak kideek bakarrik parte hartu dute. Txakurrek arazo handiak izan zituzten, izan ere, Gipuzkoako eta Arabako lurak oso ezberdinak dira eta usaina ere bestelakoa denez, txakurrak galduta ibiltzen dira. Guztira, 12 ehiztarik jardun zuten fairsaiak ehizatu nahian. Aurten, irabazlea Iñaki Lasagabaster izan da.

Gutxigatik, azkenean kale



Beste behin, Kenci Arrasate taldea irabazteko gertu-gertu izan da, eta beste behin

ere, zortea ez da etxeko mutilen alde egon. Talde bizkaitarra zen faborito; gainera, deustuarrek EBA ligarako igorera aldira sailkatzeko aukera dute, eta motibazio berezia zeukaten. Norgehiagoka, ordea, oso parekatua izan zen, eta hasierako bi laurdenetan joko bizia izan zen nagusi.

Aste Santua tartean izan dela kontuan izanik, etxekoek sasoi ona erakutsi zuten, baina jokalaririk batzuen falta sumatu zen. Aipamen hau behin baino gehiagotan egin dugu, izan ere, arrasatearren arerio nagusiak lesioak eta jokalariren egin-behar pertsonalak izan dira, eta horrela zaila da puntuak lortzea. 93-89 izan zen azken emaitza. Zapatuan, Kenci Arrasatek denboraldiko azken partidua jokatu du, Urdanetaren aurka. Ikusleen berotasuna ez da soberan izango.

Kiroldegia itxita

Gipuzkoako garbiketa arloko langileek deitutako mugagabeko grebaren ondorioz, apirilaren 25etik, eguaztena, aurrera Musakolako kiroldegia itxita egongo da. Mugagabeko greba denez, ezinezkoa da noiz irekiko duten aurreratzea.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32


Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

Hainbat pilota txapelketa



Datozen egunetan, hainbat kirol txapelketa hasiko dira. Domekan, hilak 29, Gipuzkoako Euskal Pilota Elkartek antolatuturik, XXXIV. herri arteko txapelketa hasiko da. Arrasateko joaneko partidua Azpeitian jokatuko du, eta itzulera-koa Arrasaten izango du apirilaren 5ean. Bestalde, Deba arroko txapelketako finalak domekan jokatuko dira Antzuolan. Finalean, Arrasateko Zuazua-Agirre bikotea izango da, eta Jauregi eta Azaguirre plaentziarren aurka jokatuko dute txapela. Horrez gain, Arrasateko Pilota Elkartek lau t'erdiko pilota txapelketa

antolatu du. Txapelketa hori hamasei urtetik gorakoendako izango da, eta bi kategoriatan banatuko da: lehenengoan, erdi mailako pilotariak izango dira, federatu ohiak, eta bigarren mailan, gainerako pilotariak. Prezioa, bikoteko, 2.000 pezeta izango da eta izena ematea Uarkapeko tabernan egin beharko da maiatzaren 7an. Txapelketak bialdi izango ditu: lehenengo liga erara jokatuko da, sei bikoteko taldeak egingo dira eta onenek aurrera egiteko aukera izango dute; bigarren aldian, kanporaketak izango dira protagonista: final-laurdenak, fina-

lerdiak eta finala. Partidu guztiak zapatu goizetan jokatuko dira Arrasateko pilotalekuan. Hogeita bi tantora izango dira eta lau t' erdi barruan jokatuko dira. Argi utzi behar da txapelketa pilota goxoekin jokatuko dela, eta bikote bakoitzak ordezkoko baten izena eman beharko du. Txapelketaren lehenengo aldian ez da epailerik izango, talde bakoitzeko lehena sailkatuko da, eta partidua batean kale eginez gero, bikotea txapelketatik kanporatua izango da. Horiek dira txapelketako arauetako batzuk, eta esku hartzeko gonbita egiten dizuegu.

Jokatzekoak

FUTBOLA

zapatuan

Bigarren mailako gazteak

11:00etan, Atxabalpen
Arrasate - Behobia

Lehen mailako erregionala

16:15ean, Atxabalpen
Mondra - Ilintxa

Lehen mailako gazteak

18:15ean, Atxabalpen
Arrasate - Zumaiako
domekan

Ohorezko kadeteak

11:45ean, Atxabalpen
Arrasate - Miren Bihotza

SASKIBALOA

zapatuan

Lehen mailakoak

18:00etan, Iturripen
Kenci-Arrasate - Urdaneta

Senior maila

16:00etan, Musakolan
Kenci Arrasate - Lazkaoko



ESTELLA ORTOPEDIA

Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna
Osakidetzarekin eta Lagun Aroekin hitzartua

Etterako laguntza teknikoak

- Eusteko sistemak
- Garabiak
- Eskaren aurkako airezko koltxoiak
- Segurtasun izarak



Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63

RPS 421/97

GORKA

ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78




Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

Eskalatzaileak hormari itsatsita



Eskaladak, jende askok ulertzen ez duen kirola bada ere, geroago eta zale gehiago ditu, eta herriko gazteek (eta ez horren gazteek) kirol horretaz gozatzeko asmoz eraiki zen pilotalekuko boulderra. Askotan salatu izan dugu gauza asko erdibidean uzten ditugula, edo hobeto egin zitezkeela, baina adituen ustez, hau da, egunero-egunero ordu asko igarotzen dituzten gazteen ustez, Arrasateko boulderra oso ona da. Gauza guztietan moduan, beti izaten da zer

hobetu, eta hantxe izaten direnen arabera, boulderraren ordutegia ez da aproposena. Domeketan ere zabaldu behar ko lukete, gazteek orduan izaten baitute denbora libre.

Orain arte, boulderra entrenatzeko soilik erabili dute, baina aspaldian, modalitate bihurtu da. Jeneralean, negu partean izaten da jende gehien, udaberria iristen denean, eskalatzaileek benetako hormak nahiago izaten dituzte eta. Euskal Herrian, eskalatzeko oso paraje aproposak ditugu, bai-

na eskalatzaileen gustukoena Atxarte, Baltzola (Dima), eta Etxauri (Iruñea) dira; halaber, Araotzeko hormak ezin ditugu ahaztu.

Kirol honetan eguneroko entrenamendua oso garrantzitsua da, eta horretarako jarraitasuna beharrezkoa da, izan ere, bi aste ezer egin barik egonez gero, hormara bueltatzean ederto nabaritzen da. Euskal Herriko eskalatzaileen artean, Josune Bereziartu beasaindarra, Patxi Usabiaga eta Iker Pou gasteiztarra nabarmen ditzakegu. Azken horrek Wolfan Gullich mitikoaren bidea jarraitu du, eta pasa den urtean, alemaniarrek irekitako Action Direct izeneko horma eskalatu zuen. Maila horretara iristen ez badira ere, bikain eskalaten duen

jende asko dago bailaran, eta hori egiaztzeko, udako edozein arratsaldetan Araotzera hurbiltzea besterik ez duzue. Mendingo egiten diren kirol guztien antzera, eskaladak oso jende gutxiri ematen dio gertutik bizi izateko aukera, eta ematen dionari gutxi irauten du, urte askotan sasoi onari eustea ezinezkoa baita. Ezin esan daiteke kirol merkea denik, materiala garestia baita, eta kanpora joan nahi izanez gero, bidaiak ere garestiak izaten dira. Probatzeko bakarrik bada ere, egunen batean hurbil zaitezte Arrasateko boulderrera, ikusi eskalatzaileek zer egiteko gai diren, eta argi izan entrenamendu handiarekin hormari itsatsita egoteko arazorik izango ez duzuela.

Beharrezko materiala

Katu oinak	5.000-14.000 pezeta bitartean
Arnesak.....	10.000 pezeta inguru
Magnesioa.....	300 pezeta pastilla bakoitza
Sokak.....	15.000-30.000 pezeta bitartean
Espresak.....	1.000-5.000 pezeta bitartean (bakoitza)



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

LEIBAR KARRINDEGIARI Mitarre, 1 • Tf. 943 771379 Lorandendi, 1 • Tf. 943 791833	ERASTI Kioskon Durana, 19 • Tf. 943 799876
Maritxu Mertzeria Araba Ibilbidea, 24 Tf. 943 79 23 53	GEMES EDERTZE ARETOA Durana, 40 Tf. 943 799918
Jon HARATEGIA Lorandendi, 1 • Tf. 943 79 71 69	Santa Kurtz Janari denda Tf. 943 79 28 19
MartiW ESTACIONERIA • CINTASERIA Mitarre, 16 • Tf. 943 79 01 72	OROCBERA MERTZERIA ERREKABARREN, 3 • Tf. (dendakoa) 943 79 78 63 irratikoa 943 79 86 94
FARMA BIZI Lorandendi, 8 Tfnoa-Faxa: 943 771818	IRIARTE Umeen denda eta lantzeria Durana, 8 • Tfnoa: 943 79 10 96
BELEURGIA MIREN & ZURINE BIZIEN KONTABILIA Durana, 35 Tf. 943 79 10 15 Lorandendi, 9 Tf. 943 79 44 28	TXILARBA ELIKADURA BEREZIA Durana, 35 Tf. 943 79 10 15 Lorandendi, 9 Tf. 943 79 44 28
IMANOL JANARI DENDA Gorbea kalea • Tfnoa: 943 79 05 83	Irudi ILUSTRAZIETA PILUQUERIA MIXTA Erreka Barren, 20 b. • Tf. 943 798090
ALBOKA Gazte moda Durana, 36 • Tfno: 943 771610	HERRASTI AKEITA ETXEA CAFES Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83
ELECTRONICA RITZORROTZ • Armatzen eta marrotoen • Instalazio elektronikak • Altzari, sarrailu, kableak eta parafisikak • Telebista-erreguladoreak, sarrailu eta kompartak • Sarrailu digitalak Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610	Zubia Oinetakoak Poltsak • Zapatak • Gorrinak Mitarre, 14 Tfno: 943 79 10 00
NERIAN LORADENDA Tfno: 943 79 70 66	PAPERDENDA IBER LOTERIA Otalora, 2 Tfno: 943 79 24

ARETXARTEk bi bikoterentzako bainuetxe batean astebukaerako egonaldia zozketatuko du.



**2001eko maiatzaren 11n
izango da zozketa**



IBARRA ESTANKOIA PRESENTA KASINATZERRIA Bilakaia, 3 • Tf. 943 792377	Lasai Mange-iragailuen Prestazioa enpresa eta epelkizun diplomazua Lezama merkatal zentroa Santa Kurtz, 24 • Tf. 943 770434
ASENSIO JANTZIDENDA Mitarre, 12 • Tfno: 943 79 10 72	JOSU Urdaiegia Gaztegia Kroasantegia Janari prestatuak Mitarre, 1 • Tf. 943 77 03 08
Frutan eta txarkuterian espezialitate Angelines AUTOZERBITZUA Mitarre, 16 • Tfno: 943 79 61 42	Larraz Peluqueria y Salón de belleza • LUZATZEAK • MIRROPIGMENTAZIOAK • DEPILAZIO ELEKTRIKOA Lorandendi, 11 • Tf. 943 799079
ARETXABALETA FOTOGRAFIA ITURGINTZA Durana, 16 • Tfno: 943 79 17 53	Etxabe harategia Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61
G BURTUTIA LERROKOKO GARRITZAK GARRITZE Lorandendi 6, Behea • Tf. 943 79 53 61	BEGIBO OPTIKA Lorandendi, 10 • Tf. 943 79 98 21
Jauregi okindesia Otalora, 10 Tf. 943 79 57 47	ZENIZ liburudenda Herriko Plaza, 10 Tf. 943 79 75 53
ALDE ARETXABALETA Murubide IFA Murubide, 4 • Tf. 943 79 91 76	Gertu Jakien elaborazioa eta salmenta Mitarre, 10 • Tf. 943 770612
MARI KARMEN OHINETAKOAK Errekabarren • Tf. 943 79 59 85	Eruteria Errekabarren Fruta denda LORANDENDI, 10 TEL. 943 77 01 26 30550 ARETXABALETA
XUME Fotodenda Errekabarren, 14 • Tf. 943 79 11 19	L10 LORANDENDI, 10 TEL. 943 77 01 26 30550 ARETXABALETA

ELIKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATUAK ETA TURISMOA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

IKASTAROAK ATZERRIAN

haur, gazte eta helduentzako

CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

INGELES FRANTSESA ALEMANA

- Ekintza turistikoa eta ludikoekin
- Eta **CIMek** beti eskaintzen dizun bermearekin
- Ingelesek udalekuak Lizarran haurrentzat**

Donostia-San Sebastián
Zubieta, 26.
Tel.: 943 43 31 02

Arrasate
Avda. de Álava, 4.
Tel.: 943 71 20 55

Vitoria-Gasteiz
Florida, 8A.
Tel.: 945 15 01 55

Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00



Uda honetan

INGALATERRA
ALEMANIA
FRANTZIA
KANADA
IRLANDA
EE.BB.





E-mail: secretaria@cim-idiomas.com • http: www.cim-idiomas.com

Goikobalu, Espainia mailako lehiaketa batean



Iaz, ekainean, Goikobalu abesbatzak Autolen, Errioxan, egin-dako abesbatza txapelketa irabazi zuen. Lehen postu hark oraingo asteburuan jokatu den beste txapelketa batean esku hartzeko eskubidea eman zion Goikobaluri: Kantu koraleko nazio sari handia.

ORAINGO ASTEBURUAN

Madrilgo Griñon hiriraino joango dira arrasatearrak asteburuan. Zapatuan, hilak 28, kanporaketa izango da, eta lau abesti eskaini beharko ditu Goikobaluk. Hori gaintitzen badute, hurrengo egunean, 29an, goizeko 11:30etik aurrera, finala jokatu dute: aurreko eguneko bi abesti eta bes-

te bi berri abestuko dituzte.

HAINBAT ESTILO

Hainbat estilo lantzea eskatuko diete: klasikoa, erromantikoa, garaikidea... eta, kanporaketa aldirako, honako kantak aukeratu ditu Goikobaluk: *Magnum Misterium* (T.L. Vitoria), *Chotis de Madrid*, *He that shall endure to the end* (F. Mendelssohn), eta *Lastozko zubia* (J. Belloportu).

Egunean bertan jakingo dute epaiaren erabakia. Oraingoan, arrasatearrek ez dakite zein aurrekari izango dituzten, ez eta, irabaziz gero, zein sari eramango duten, baina adierazi digutenez, hori gutxienean da euren dako.

Segurtatu hobeto zure autoa
Segurtasun osoz



 **MAPFRE**

Zure bizitza kalitatea segurtatzen dugu

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22 • Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04

JOAQUIN RODRIGUEZ (MARGOLARIA)

«Disko bat margotu dut»

Aurreneko urtean Arrasaten, iaz Bergaran, eta aurreneko, berriro ere, etxean geratu da Gure-Leku tabernak antolatutako III. Espacio-Libre-Tecnica arte plastikoko saria. Joaquín Rodríguez 39 urteko artista mondragotarrak eskuratu du 125.000 pezetako saria, *El Olvido Azul* izeneko margolanarekin.

— Noiztik margolari?

— Askori moduan, txikitandik dator kit margotzeko zaletasuna. Baina, orduan ez geneukan aukera askorik marrazki eta margozaletasunean sakontzeko. Hortaz, nire kabuz aritu nintzen: ikastetxean, eskolaz kanpoko asteburuko ekintzetan... Nik dakidana neure kasa ikasi dut, han-hemen ikastaro laburrak egin eta beste margolari batzuei begiratuta, Arte Ederretako edo beste ikasketarik egin barik. Hortaz, saiakuntza asko egin dut. Lehenengo, paisaiak egin nituen; gero, bodegoiak, erretratuak... horren ostean, abstraktura salto egin nuen, naïf estiloarekin ausartu nintzen... geroago, errealismoa... harik eta nire estiloa topatu arte.


— Eta hori zein da?

— Ez dakit, bada... *El Olvido Azul* ikusi duzuenok esan beharko duzue hori.

— Interesgarria, behintzat, iruditu zait neuri. Nondik atera duzu inspirazioa?

— Buruz margotzen dut, aurrean dudaketik kopiatu barik. Musika dut lagun bakarra. Hori bai, hasi aurretik ideia lantzen dut, eta horiek nonahi etortzen dira: ikusi dudana argazki bat, oroitzapen bat, irakurketa bat... horietatik, edozein izan daiteke sortzeko atea. *El Olvido Azul* en kasuan, hamabi margolantxok osatzen dute margolan bakar hori. Margolana disko bat da, eta biñetak, abestiak. Idazleek ipuin bilduma idazten duten moduan, nik hamabi abesti margotu ditut.

— Eta zer kontatzen digute disko



horretako abestiek?

— Hainbat kontakizun daude: pertsona batena, amodiozko istorio bat, istorio triste bat, txakur baten nondik norakoak... Azkenengo biñetarekin lan handia izan nuen. *H2O* du izenburua.

— Irabaztea espero zenuen?

— Inondik inora ez. Oso lan politak aurkeztu ziren. Gainera, egun hartan oportunitateak bueltan nentorren, eta telefonoz dei egin zidaten, segidan Gure-Lekura joateko esanez, eta pentsatu nuen akzesita-edo eman gero zidatela, eta gero, eskua ematen hasi ziren, GOITBkoek elkarrizketa egin zidaten...

— Sari horrek animoa eman dizu?

— Bai, jakina. Aurkeztu izan naiz kartel lehiaketatarra, eta irabazi ere, irabazi izan dut inoiz. Margo lehiaketatarra aurkezteak dedikazio handia eskatzen du, baina aurkeztu ezean, aukerak galtzen zoaz. Irabazi izanak ahalegin hori egitera animatzen nau. Gainera, orain arte ez dut bakarkako erakusketarik egin, eta badut aukera: Gure-Lekukoek tabernan erakustera animatu naute, eta saiatuko naiz, bai.

«Hamabi margolantxok osatzen dute *El Olvido Azul*. Margolana disko bat da, eta biñetak, abestiak»

aste gazte

■ AUZOLANDEGIAK

• Gazte-Kutxak uztail, abuztu eta irailerako auzolandegiak antolatu ditu Gipuzkoako hainbat herritan. 16-29 urte bitartekoendako. Epea: maiatzak 31.

• Madrilgo SCI elkarteak mundu osoan auzolandegiak antolatu ditu. Epea: maiatzaren 1etik aurrera, tokiak bete arte.

■ UDALEKUA

• Foru Aldundiaren eskutik, udako programa, 14-17 urte bitartekoendako. Huesca, Bida-rrai, Almeria, Castellon, Avila, Zarautz, Toledo eta beste hainbat lekutan ekintza egiteko aukera: arroilen jaitsiera, eskalada, mendi ibilbideak, ur-ekintzak, hipika, antzerkia, sorospena, bizikleta ibilbideak, bertsolaritza... Epea: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra.

■ UDAKO IKASTAROA

• Udako ikastaroak hainbat arlotan, EHU-UPV antolatuta, ekainean hasi eta iraila bitartean egingo dira jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak, eta abar. Epea: maiatzaren 7an hasi eta izena emate kopurua bete arte.

■ IKASTAROA

• Udaleko Gazteria Sailak antolatuta, bio-dantza ikastaroa, nork bere adierazpena, bizitasuna, sormena eta autoestimua lantzeko ikastaroa. Maiatzeko larunbat arratsaldetan, 16:00etatik 19:00etara. Izena ematea: 4.000 Pta/2.500 ikasle edo langabeendako.

■ LANA

• Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuetan begirale gisa lan egiteko aukera. Epea: maiatzak 3.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

San Andres, auzo parte hartzailea

Hainbat larritasun izan ditu aurten San Andresko jai batzordeak, orain bi hilabete alkatetzako egoitza kaltetu zuen sute bat izan zelako; kontuak kontu, azkenean arazoak konpondu dituzte.

NAGUSIEN BAZKARIA

Hala ere, auzoko nagusiek izango dute, beharbada, zer esan. Maiatzaren lehen bazkaria egingo dute nagusiek, urtero moduan; eta arazoa, iaz bezala, toki falta da. Corazon de Encina kultura elkarteak egoitza utzi du, baina jangelan 200 lagunendako lekua besterik ez dago, eta San Andresen 800 adineko inguru daude. Izena emateko epea astelehenean bukatu zen, eta leku guztiak hartuta daude dagoeneko.

IKASTAROAK

Beste ekintza batzuetan ere oso parte hartzaileak dira San Andresko bizilagunak.

Oraingo astean hasi da auzoko emakumeendako eskulan ikastaroa, eta hainbat lagun kanpoan geratu dira. Horiei aukera emateko, esku-



Herri kirola izango da aurtengo ekintzetako bat.

lan ikastaro gehiago edo margo tailer bat antolatu guran dabil San Andresko auzo alkatea. Eta eskulan ikastaroaz gainera, autoestima lantzekoa ere badute aukeran auzoko emakumeek.

San Andresek orain arte eskaini izan dituen hirugarren eta laugarren ikastaroak bes-

terik ez dira horiek. Hain auzo handia eta jendetsua izanda, datu horrek harridura sor dezake.

Baina, eskaintza eza ez da auzoko interes faltagatik izan: auzoko aurreneko ikastaroa iaz hasi zen, irailean, eta orduan, 40 emakumek esku hartu zuten.

SANTA TERESARA

Lehenago, auzoan bertan ikastarorik ez zutenez, Santa Teresakoetara joaten ziren San Andresko 50 bat emakume. Arrakasta ikusita, eskaintza aberasteko lanean dihardute San Andresko arduradunak: "Margolaritza eta sukaldaritza tailerra eskaini gura ditugu. Gainera, eskulan ikastaroko lanekin erakusketa zabalduko dugu. Hortaz, jendea anima dadila eta parte har dezala!", dio auzo alkateak.

Nagusien bazkarirako astelehenean bukatu ziren lekuak



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Alberto Iñurrategi eta Jon Lazkano Jordaniatik bueltan

Igo Autobusera Astelehenean, 10:15ean



Jordaniako filmaketak bukatuta, Alberto Iñurrategi eta Jon Lazkano etxera itzuli dira.

Oinak izarretan izenburupean, hainbat dokumental grabatzen ari dira bi mendizaleak, eta orain dela gutxi Jordaniar izan dira, Jewel Rum eskalatzan. Hori da Jordaniako gailurrik altuena.

Mendizale atxabaltarrak eta bergararrak hainbat espedizio egin dituzte batera, eta orain arte egindakoez eta aurrera begira dituzten asmoez hitz egingo dute Arrasate Irratian. Gainera, Felix Iñurrategi Fundazioaz ere berba egingo dute.

Transplantatuak

Transplanteren bat izan duten askok diote bi aldiz jaio direla, izan ere, asko hainbat urtez izan dira transplantea noiz egingo zain. Lagun horien esperientzia jakiteko, euren elkartera joko dugu eta transplantea izan duten hainbat lagunekin solasaldia egingo dugu. Besteak beste, Juan Arriaran arrasatearrarekin izango gara. Gainera, organo emaile izatearen garrantzia azalduko digute.

Tarte horretan esku hartu nahi baduzue, dei egin 943- 71 17 31 telefono zenbakira. Eguaztenean, 10:15ean.

Maitzaren lehenean jai

Astelehenean, hilak 30, ohiko saioak izango badira ere, martitzenean jai izango dugu, Langilearen Eguna baita. Hala ere, badakizue Arrasate Irratiak ez duela etenik egiten, eta musika izango duzue lagun egun guztian.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Maiatzak 3: **Andy Chango** (sarrera 1)
Maiatzak 4: **Vargas Blues Band** (sarrera 1)
Maiatzak 11: **Dimmu Borgir + Susperia**
+ **Destruction** (sarrera 1)

Egun hauetarako **SARRERAK**
zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren
egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Zein Kontzertu?

Bidalai gurera: Arrasate Press, Otalora 31
edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31**.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepassoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoak.
- 12:00 Bi zoro ta zu.

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Oraingo asteko argazki zahar-
raren bitartez, Biteri Esko-
lak gogora ekarriko ditugu.
Ikusten den moduan, argaz-
kia On Pedro Biteriren

eskulturaren aurrean dago aterata, 1961ean.

Nesken Eskola Nazionalean zegoen
orduan eskultura, gaur egun, oster, Gru-
po San Juan izeneko etxebizitzan lorategi-
an dago.

Goitik hasita, ezkerretik eskumara,
hauek agertzen dira argazkian: Lour-
des Egidazu, donostiar bisitari bat, erdian
dagoena Lourdes Amozarrain da, erdi
etzanda dagoena Esther del Valle eta bera
orutzen dabilena Arantza Amozarrain.

Aurrealdean, besoak gurutzatuta ditue-
na Maria Asun Elgoibar da, betaurreko-
duna Ines Yarza, makurtuta dagoen lehe-
nengoia Maria Jesus Bidaburu da eta haren
ondokoa Carmen Otadui.

Argazkia:

Lourdes Egidazu.

Berriemailea:

Tere Egidazu.



Zenbaki

Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETA

Tel.: 943 71 21 12 • Faxa: 943 71 22 68 • E-mail: zenbaki@jet.es

*Aldez aurretik
deitu!*

Informatu, aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

ERRENTAREN AITORPENA

TELEMATIKA:

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



NAZIO ASKE BAT JAIOTZERA DOA

euskal herria



BOZKATU





lider **naturala**

Hona hemen Ford Mondeo Berria. Harrituko zaituen autoa. **Babeserako Sistema Adimentsu Esklusiboarekin.** Abian noiz jarri badakiten belaunaldi berriko 6 aire poltsarekin. ABSrekin. EBArekin. Egonkortasun Kontrol Sistemarekin. Eta askoz gehiago. Kanpo diseinu ausarta eta dotorea. Aluminiozko 16vko motoreen belaunaldi berria, potentzia handiagokoak eta eraginkorragoak. Gasolinan 170 cv ra artekoa eta 115 TDdin. Argibide gehiago eta froga www.ford.es edo 902 442 442.

 **MUGARRI**

ford**mondeo** berria 